

2023ko urriaren 7an, Hamas talde terroristak Israelen kontrako eraso masibo bati ekin zion. Ekintza odoltsu hark ehunka hildako eta zauritu eragin ditu Israelen eta Gazan. Gertakari horien harira, Irungo Udalak:

1. Gogor gaitzesten ditu Hamasen eraso terroristak eta Israelek Gazan egindako sarraskiak, ehunka hildako eta zauritu eragin dituztenak.
2. Elkartasuna adierazten die biktima guztiei eta haien senideei, eta indarkeria indiskriminatua berehala eteteko exijitzen du, baita gatazka honen esparruan bahitu dituzten pertsona guztiak berehala eta baldintzarik gabe aske uzteko ere. Gogoan daukagu Ivan Illarramendi zarauztarra.
3. Israelek kanpoko erasoetatik bere burua babesteko eskubidea duela aitortzen du, eta bidezko defentsa hori gauzatzean Hamasen kontra abiatzen dituen ekintza guztietan nazioarteko zuzenbide humanitarioa zorrotz betetzeko exijitzen dio, palestinar zibilak errespetatzeko eskatzen dio, baita Gazako populazio zibil palestinarrarentzako oinarritzko produktuen blokeoa eteteko ere, eta laguntza humanitarioa behar duten herritarrenganaino iristen utz dezala, baldintza egokietan.
4. Nazioarteko zuzenbidea errespetatzeko deia egiten du, populazio zibila errespetatzea barne, baita eremu horretako bakea, segurtasuna eta egonkortasuna sustatzeko deia ere.
5. Bi estatutan oinarritutako konponbidearen aukera zailtzen duten alde bakarreko neurri guztiak deitoratzen ditu, huraxe baita palestinar eta israeldarren xede legitimoei erantzun diezaiekeen konponbide bakarra eta bakearen eta segurtasunaren aldeko funtsezko elementua, eta bide horren alde jotzen duten ekimen guztiak babesten ditu.
6. Elkarrizketan oinarritutako konponbide baketsu eta demokratikoa indarkeriaz eta sufrimenduz betetako 75 urte hauei amaiera emateko bidea izan daitekeela uste du, Nazio Batuen ebazpenak eta 1993ko Osloko akordioak abiapuntu gisa hartuta; indarkeria hori, tamalez, bi alderdietako milaka lagunek pairatu behar izan dute.
7. Espainiako gobernuari, Europar Batasunari eta nazioarteko komunitateari dei egiten die, erabakimenez jardun dezaten indarkeriaren zurrumbilo hau eteteko, indarkeria hori ez zabaltzeko eta lehenbailehen lortzeko bake iraunkor bat eta gatazka honentzako behin betiko konponbide bat.
8. Udaletxeko balkoian jarriko ditu bakearen usoa eta gerraren kontrako mezu elebidun bat («GERRARIK EZ – NO A LA GUERRA»), Irungo hiriak bakearen eta giza eskubideen defentsaren alde duen konpromisoaren adierazgarri, edozein atentatu, gatazka edo gerraren aurrean.

SOCIALISTAS DE IRUN / IRUNGO SOZIALISTAK EAJ-PNV / PP